



JJEURT!

Bertoko errebisti - 1. alea 1992. eko iraila


ZAGOZAN LEKUAN ZAGOZALA LEIDIZU JEURT!
ZAGOZAN LEKUAN ZAGOZALA LEIDIZU JEURT!
ZAGOZAN LEKUAN ZAGOZALA LEIDIZU JEURT! Z
ZAGOZAN LEKUAN ZAGOZALA LEIDIZU JEURT! Z

ZAGOZAN
ZAGOZAN
ZAGOZAN
ZAGOZAN
ZAGOZAN
ZAGOZAN
ZAGOZAN
ZAGOZAN
ZAGOZAN L
ZAGOZAN L
ZAGOZAN L
ZAGOZAN L
ZAGOZAN LE
ZAGOZAN LE
ZAGOZAN LEK
ZAGOZAN LEK
ZAGOZAN LEKI
ZAGOZAN LEKI

*anuntziarik
egin nahi
badozu,
hementxe
dozu
sekulako
aukera.*

IEURT! ZA
IEURT! ZA
JRT! ZAGO
JRT! ZAGO
TI! ZAGOZA
TI! ZAGOZA
ZAGOZAN
ZAGOZAN
GOZAN LEK
GOZAN LEK
OZAN LEKUA
OZAN LEKUA
N LEKUAN ZA
N LEKUAN ZA
EKUAN ZAGOZ
EKUAN ZAGOZ
N ZAGOZALA L
N ZAGOZALA L

ZAGOZAN LEKUAN ZAGOZALA LEIDIZU JEURT! ZAGOZAN LEKUAN ZAGOZALA LEIDIZU
ZAGOZAN LEKUAN ZAGOZALA LEIDIZU JEURT! ZAGOZAN LEKUAN ZAGOZALA LEIDIZU
ZAGOZAN LEKUAN ZAGOZALA LEIDIZU JEURT! ZAGOZAN LEKUAN ZAGOZALA LEIDIZU JEURT!
ZAGOZAN LEKUAN ZAGOZALA LEIDIZU JEURT! ZAGOZAN LEKUAN ZAGOZALA LEIDIZU JEURT!



Aurkibidea

Jeurt: bertoko errebisti	__ 2
Editoriala	_____ 3
Udaletako informazioa	_ 3
Elkarrizketa J.Oleari	_ 4-5
Ipuina	_____ 6
Deituren jatorria	_____ 7
Kolaborazioa	_____ 8-9
Sendabedarrak	_____ 9
Elkarrizketa	
D.Erkiagari	_____ 10-11
Kirolak	_____ 12
Eritziak	_____ 13
Umeek dinoskuena	__ 14
Zaharrek dinoskuena	_ 15
Baserriaz	_____ 16
Bertoko biztanleriaz	__ 17

Azala: **Simon Goikoetxea**

Kontrazala: **Lea gainean zubia.**

Kontrazaleko testu bilketa: **P.Albizu.**

JEURT!

BERTOKO ERREBISTI

Hemengatoz TENPLAU egunotabada!
Izango dira hiru bat urte ERREBISTI-gaz
buelbaka hasi ginela eta badakizue,
lehenengotan gauzak DZI-DZAU egin
gura, BERTOKU izatea be nahi ETA
ENPARAUEK...

Hain emon deusoguz buelta asko ze,
azkenerako LORROTZA be begibiztakua
zan ta OINETSA gehiago luzetu orduko
JEURT!

Hemengatoz ba, ea zuekin batera LEA
IBARREKO ERREBISTI aurrera ataraten
dogun!.

Editoriala

Azkenean hemen gagoz; orain arte orri txatalak izan diranak, sikiran be halako batean aldizkari moduko hau osatzeko lain izan diranean...! Beharbada, eskuartean daukazula, zeure moduz pentsatuko dozu "ez dabe holako hiletarik joko bada, honeek lau orriogatik?" Oraindino hor bazagoz, jarri zaitez patxadaz, trankil, eta igual, ezezagunen bat ikusiko dozu berton, edo irribarrerren batek urtengo deutsu, edo batek badaki. Geuk be jakin badakigu beste munduko deskubrimendurik egingo ez duguna, baina, behintzat leidu eta gero auzokoagaz edo seme-alabekin "nor dok/don ba errebistan agertzen dana?" esateko beste balio badau, nahiko izango da. Azken baten horixe zan nahi zana, bertokook

geure inguruko kontuak, eritziak, jendearen abilidadek eta agertu; hau irakurrita bada, badakizu ZEU BE tartean zengozkeela nahi izan ezkeru.

Denboratxoa da aldizkaria sortzeko asmoa jaio zala. Pausu txikiz egin dogu aurrera; dirua urri bastarretan eta tire! Lea Ibarreko Mankomunitateari esker lehenengo ale hau behintzat hemen dago. Hurrengoan be gugaitik bada, urtengo dau, gauzea dirurik eza izango da.

Besterik barik eta honaino leidu badozu pasau egizu orrialde hau eta oneinyaizula!

M. Mallea

UDALETAKO INFORMAZIOA

- Aulestiko Udala -

• Idazkaritza lanpostu bakarra eukitzeko, Aulesti eta Gizaburuagako Udalerrien artean eratu zen Elkartearen banatzea.

Nahiz eta Elkartea banatzeko administrari espedienteari hasiera eman ez, izaeraz elkartugabeko Udal bezala funtzionatzen izan dute azken bost urte hauetan.

Espedienteari hasiera ematea erabakitzen dute Aulesti eta Gizaburuagako Udal Ordezkariek. Aulestiko Udalbatzak 1.992ko otsailaren 12an.

Espedientea bukatzeaz dago, Bizkaiko Foru Aldundiko txostenaren eta Eusko

Jaurilaritzako onarpenaren zain egonik.


• Ikastaro artistikoak. Teknika artistikoak sustatu, hedatu eta zabaldu nahian, Udalak hiru ikastaro antolatu nahi ditu: zeramika, esku-lanak (larrua, otzaragintza, grabatua, etabar) eta argazki ikastaroa.

Horretarako Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailean dirulaguntza eskabidea aurkestu du Udalak.

Ikastaro bakoitza 60 ordukoa izango litzateke, herriko Arte Eskolan burutu eta iraupena irailetik 1.993ko uztailerarte.

"SAKONETA"

PROBALARIA



Jomi (25 urte) gizon probarako zaletasuna umetatik datorkio.

Zure izena eta abizena.

-Jon Olea Unamuno "Sakoneta".

Jaiotza eguna.

-1966 -8- 16.

Non jaio eta bizi.

-Gernikan jaio, Zuberon bizi Sakoneta baserrian.

Ikasketak.

-O.H.O.

Ofizioa.

-Karnizeroa.

Noiz eman zenituen proban

zure lehen urratsak?

-Kolonietan, Pepi botilero zelarik.

Ofizialki Nabarnizen.

Zergaitik?

-Sariagaitik, eta irabazteko aukera ikusi nuelako.

Nork bultzatuta?

-Patxi Guenaga jaunak, "Markinako matarifea".

Horoskopoa sinesten duzu?

-Batzutan bai, beste batzutan ez.

Andragairik baduzu?

-Bai.

Andragaiak ondo ikusten al du

zure proba ofizio hori?

-Ez du iritzirik.

Ikusten duzu telebista?

-Bai.

Zeintzuk programa dira zure gustokoenak?

-Telecinco-ko erotikoak, pelikula mota guztiak, eta kirol arloan motor eta kotxe karrerak, etab...

Ikusi duzun azken pelikularen izenburua.

-"Los siete magníficos".

Hobbyrik baduzu? Zeintzuk?

-Bai. Motor zaharrak konpontzea eta haiekin jolastea.

Txikitan bazenuen probatan zaletasunik?

-Sekula ere ez.

Egia al da ez duzula orain arte proba bat ere galdu?

-Banakoetan sekula ez dut galdu.

Hirukoteetan bai.

Zenbat txapelketa eskuratu dituzu?

-14 txapel.

Txapelketa edo desafioa, zein

da zuretzat garrantzitsuena?

-Biak, baina garrantzitsuena desafioa, neure lagun askok dirua jokatzan duelako.

Drogaren arazoa nola ikusten duzu?

-Ondo. Ez balego, jende askok ez luke jakingo zer egin.

Probatu al duzu inoiz?

-Ez.

Zer egingo zenuke seme drogadikto bat bazenu?

-Lehenengo eta behin drogadikto izan ez dadin ahaleginak egingo nituzke, motor, kotxe etab... konpontzen afizioa sortuz. Balitzo, ehuneko ehun lagunduko nioke urteten.

Probak ematen duen diruarekin bizitza aurrera atera daiteke?

-Ez.

Zein izan duzu probarik gogorrena?

-Ipazterkoa, 1.250eko harri gorriarekin.

Zein da zuretzat gerritiran onena?

-Arrangiz.

Gustatzen ahal zaizu irakurtzea?

-Larregirik ez.

Ze hiru gauza eramango zenituzke isla paradisiako batetara?

-Neska eder bat, beste eder bat eta beste eder bat.

Ze iritzi duzu homosexualitateaz?

-Ondo. Normala ikusten dut.

Gero eta zaletasun gutxiago dago, zein da zure ustez honen motiboa?

-Kirol gogorra delako. **Ba ahal dago mafiarik proba munduan?**

-A tope!

Asko entrenatu al duzu zauden tokira heltzeko?

-Nahiko.

Zein da bildur gehien ematen dizun gauza (baldin badago behintzat)?

-Sugea.

Loteria, bingo, kiniela... honelakoetan jokutzen al duzu?

-Ez.

Gozokia ala haragia jateko?

-Biak, gozokia eta haragia.

Zer da garrantzitsuena, irabaztea ala parte hartzea?

-Irabaztea.

Erreten edo edaten duzu?

-Ez.


Kapitalismoa ala komunismoa?

-Kapitalismoa ehuneko ehun.

Familian ba al duzu pro-barako grinarik duenik edo zuenik?

-Aita eta aitita.

Proba munduan bereziki kontsejurik ematen dizunik



baduzu?

-Bai. Aita, lagunak eta neure entrenadorea Patxi Guenaga, "Markinako matarifea".

Zeintzuk izan dira zeure rekord-ak?

-Egin ditudan txapelketa guztietan rekord-ak egin ditut.

Ze kotxe duzu?

-Ford Fiesta bat.

Ba al duzu biziorik?

-Batzuk.

Egia da auto karreretan aritzen zarela?

-Ez, ikusten bai.

Rocka ala trikitixa?

-Biak.

Semerik bazenu proba munduan sartuko zenuke?

-Bere eskuan utziko nuke.

Zer esan nahi du lauburuak?

-Ez dakit. Nere ustean aintzinako sinbolo edo Jaingoikoren bat.

Zergaitik Bizkaian probarako zale gehiago?

-Zaletasuna Gipuzkoan gehiago dago, nahiz eta probalari gutxiago egon.

Zuri onduen ematen zaizun probatokia zein da?

-Etxebarrikoa, txarrena Ipazterkoa. **Sokatiran ere ibilia zara?**

-Bai.

Probatu duzu harri-jasotzea?

-Sekula ere ez. **Harriari heldu ere ez.**

Ze iritzi duzu Perurenataz?

-Oso ondo. Gizon gogor eta jatorra.

Zein da zure amets utopikoa?

-Egan egin.

Eta erotikoa?

-Enoa esaten

disparaterik.

Proba aurretik harreman sexualak edukitzeak ba al du eraginik?

-Enoa erantzutera.

Proba munduan aritzen diren gaztetxoei ze kontseju emango zenieke?

-Suabe, suabe ibiltzeko, edozetarako denbora dagoela.

Eleizara joaten al zara?

-Bai.

Dantzatzeko piezarik politena?

-Agarraue.

Noiz arte proban jaun eta jabe?

-Gogaitu arte.

Gezurrik esan al diguzu?

-Ez.

Prest al zaude urrengoan beste elkarrizketa bat egiteko?

-Bai.

**J. Onaindia
A. Onaindia
A. Uriguen**

ALPERRANDI

Uritxo baten mutil zar bat bizi zan, zorra baizen alperra. Askok ezekien bere izena zein zan. Guztiak Alper Andi esaten eutsen eta aldirika artzen eben a elikatzeke ordurea. Batzuk emoten aspertuta, Alper Andigaz zer egin bear zan batzar baten erabagitea egoki izango zaba ta ekinen ekinaz uriko etxean gizon guztiak batzea lortu eben.

Askok, ordurarte bez, lantzean batek mai-baguntzat artzeari ondo eritxoan.

Guztia be zer dok, areri emoten dakana?

Zarrenetariko batek, orregaitino, bera, Alperrandi baino zarrago ta aabago izanarren, lanari lotuta bizi zala erantzun eutsen eta ori bere, bitatik bat, edo lanari lotu edo bestela bizirik lurrera eroatea gauzarik onena. Barre zantzoka artu eben guztiak eritxi au. Alperrandik berak, sorbalda biak gasuta, ordurarik ezetsalako agertu eban.

Zein egunetan izango dogu gorpu-lor ori?

-Ain egunetan.

Egun ori eldu zanean, zerraldo andi baten sartu eben gizona ta badaroe. Bidean eroela, atsotxo batek:

-Kanparik eztoz entzun-esan eutsen. Nor daroazue or? Nor il da?

-Alperrandi daroaga.

-Aor ba. Nik-i... emongo neutsan ba anega bat gari.

Alperrandik au entzueran, burua atarata:

-Errreta ala erre barik? - itanda eban.

-Erre barik.

-Aurrera, orduan.

Aldi atan gorpuak, aide ta adiskideak inguruan zirala, elizara eroaten zituen, antxe gaubelea egiteko.

Alperrandiren gorputza, gorpu etzalado edo, bakarrik itxi eben, zerraldoan, argi-artean. Gaberdiostean lapur batzuk dirua banatzeko asmoz bertan sartu ziran. Atan jarduta gero, egun aretako lapurreta ederrak goratzen ebiltzala, eurretarike batek zinoan:

-Gizonari daukazarak bai, baina bizia, Jaungoikoak emonikoa da ta, ezin kendu leio gizonari.

-Kendu ez! Oraintxe ikusiko dozue or datzan orri surra, Jaungoikoak emona izanarren, zein polito kenduko dautsadar.

Au esanda, zerraldora arretatu zanean, Alperrandik jagita sendo esan eban:

-Zeruko Santaak eta Purgatorioko arimak: lagun zahidaz.

Lapurak, dirutza andia an izteak min emoten eutsen ta barrero agertu ziran eta zortzi ta laumaraikoa entzueran:

-Jesus! Emen berrean gizon gitxienez dogoz-esanda arka egin eben.

Aurrerantzean erara bizi izan zan Alperrandi ta ordurarte bez lanik egin barik.

DEITUREN JATORRIA

Euskal deitura edo abizena da.

Bere etimologia edo iturburua hau da: ABE- (haga, biga), -TU.


Heraldikak (armarriak ikertzen dituen zientziak) Bizkaiko Begoñan aurkitzen dala dino.

ABAITUA

Abaituaren armarrian dagozan koloreak honexek dira:

ziderrezkoa, zuhaitz berdea eta tanta urdinak.

Armarriaren goiburua, latinezko "Absit invidia", (inbidiatik urrundu daitela).



ABOITIZ

diren koloreak: gorria, urrezko gurutzea, urrezko adarrak, hegala ziderrezkoa, eta armiño baltzak.

Goiburuko letrak urrezkoak dira, boloante gorrian jostiak: "Ad vitam aut culpam".

Aboitz deituriko jende ospetsua:

-Antonio de Aboitz: Eskultorea. Gordexolako elizaren lanak egin zituen 1.665ean.

-Juan Antonio Aboitz (1.751-1.824): Abadea. Lekeition jaioa. Poesi alaiak idatzi zituena.

-Juan de Aboitz: Hargina. 1.635ean Mundakako Santa Maria elizak behar zituen obrak egin zituena.

-Juan Aboitz Eguren, "Aboitz". Palazko pelotaria. Bilbon jaioa 1.894an.

-ANTONIO ABOITIZ MALAXETXEBARRIA: "Aboitz". Eskuzko pelotaria. Aulestin jaioa 1.915ean; 1.935ean hasi zan pelota munduan ezaguna izaten. Bigarren mailako kategorian jokatzeko eban, atzelari postuan.

Euskal deitura da.

Bere etimologia hau da: ABOA- (ahoa), -ITI, -ITZ.

Heraldikak Ondarroa-koa dala dino.

Armarrian aurkitzen

T. Mallea

LEA IBAIAREN ALBOETATIK ZEHAR ITSASOAN GALDU ARTE

Orain dala urte pare bat egindako inkestan, jaso genduzan eritzietan, argi esaten zan jendeak gustoko ebala INGURUA gaia. Kolaborazio honetan, Gernikarra izan arren Agustin Nabaizak inguru hau ondo ezagutzen dabela erakusten deusku. Ea urrengorako zeu be animetan zarean!

OIZ menditik behera burtzoragarritzko abiadan datozan errekatxo ur garden eta garbiak, LEA ibaia itxuratzen dabe. MUNITIBARren baretuz eta izena artunez, herri txiki eta berezi, AULESTI, GIZABURUAGA eta Oletatik (AMOROTO) igaroz, Lekeition itxaso-ratzen da.

Bailara hestua, zarratua, ez hain ezaguna, gizaldiz gizaldi eskutuan gordeta eukia izan balitz lez. Barrura sartunez bertoko jende jator eta abegi-korren eskeintzak hobeto estimatu leikez: Ohitura garbiak, mahi ona (paltrikereari kalte askorik eragin barik) eta aldarte ederra.

LEAk hogeit hamar kilometro inguruko luzerea dauka eta MUNITIBARretik Lekeitiona doan errepidetik, orain ezkerrean gero eskuman, batzuetan parean besteetan urrun, ikusi leike. Dozena bat zubi baino gehiago zehartuz, uharkak irabaziz eta bertan behera itziniko andaparak txuliatuz, LUMENTXA ukutuz, TALAIZAHARRA eta OTOIOren artean, Lekeition kresalaren usaina hartzen dau.

OIZ (1.026 m.) barrenean **MUNITIBAR Arbazegi eta Gerrickaitz, alkarregaz bizitzen gaitz**, aintzinako esakerea, agurketa honegaz hartunez: Asaba zaharren gomutaz geurean iraun dezagun Euskal Herriko eta mundu zabaleko sendo zindoei.

Guztira 24,5 km. karratu,

Berreño, Gerrika eta Totorika auzoak osatzen dabelarik. Iñoiz hamar errota ere eukitakoak baziran, gaur egun ez garirik ez artorik, pikutara joan dira gehienak. Egarrria asetzeko tabernak ugari eta iturri eder bat ere bai, bestela entzun:

Urez bahaz egarri honaze behar dok sarri.

Hemendik AULESTIra 5km. eta errekea hestu-tasunean alde bietan

Ibarrola, Zendokiz, Landaburukuak horrek hirurok dira banidadikuak baltzeran graziozak Urriolako neskatillak


bai amental zuridunak Zuberokoak esne usain daukie Malax altukuek esne sopa saliek bai Goiherrikuak urondoko mustratxok Gizaburukuek oker erre saliek bai Solagurenkuek ez dauke ze ezanik kalebarrukuek berritxu txisperuek Nari altukuek txori usotxuek dira Lekerikekuek morokil erre saliek bai Nabarriskuek

Nabarrizen jaiota Lumon batiatu Artean nobiotu eta Gernikan eskondu. (Maria Juana Uriguen Kareaga)

daukazan MOTROLLO (590 m.) eta KANPONA (501 m.) menien artetik doa.

AULESTIn, BEDARTZANDI (690 m.) eta URREGARAI (Santa Eupeme, 697m.) eskuman eta ILLUNTZAR (710 m.) ezkerrean, harana zabaldu egiten da, berriz ere hestutzeko herritik kanpo. Bere zazpi auzo edo kofradiekin

(Ibarrola, Urriola, Zubero, Malax, Narea, Santa Anton eta Goiherri)



Agustín Narbaiza

da, Leari dagokion herrien artean lur gehiago daukana: 25,22 km. karratu.

Herri-kaskotik, Gizabururantz, kilometro bat inguru, zubi zahar bat oraindik zutik irauten duana baina erabiltzen ez dana, ANTZIOR deritzona eta Bigarren Karlistadako gertaera bategaz zerikusia eukinikoa. 1.873.ean Santa Kruz abadeak, zubia eta erreka ezkerrean aldean menperatzen ebazanez, Ansotegi liberala zehartzeko adore barik lotu zan. Orduko berriak horrela diñoe.

Bideari jarraituz, 4 km. barru GIZABURUAGA, aintzina IBAIBASO deitzen zana. Bizkaiko herririk txikiena biztanle-goiz, 6,33 km. karratu.

Auzoak (Eguen, Lariz, Laxier eta Okamika). Sartukeran eta ibaiaren eskoi aldean BENGOLEA Dorrea (Bengoladorre), zutunik eta gogor baina nahiko alperrik dagoana, aldeetan gehigarri batzuk daukalarik. Ibaibideari jarraituz eta uharka eder baten aldamenenan, garai artan izan eitekean industri

konplexua, errota eta burdinolaren aztarnak Dorreari lotuak izan zirenak.

Beste 4,5 km. gitxi gora behera OLETA (Amoroto). Guztira 5 edo 6 etxe, etriko lau jantokiak diralarik. Auzoak (Elexalde, Ugarran, Odiaga eta Urrutia) 13,36 km. karratu.

Oletan amu arrainak, Lean illuna orduko platerean.

Toki hau bidegurutzet baten kokaturik dagoenez, esaniko letara apartez Berriatuara ere Milloitik pasatuz, urten leike.

Lekeitoraino 2 km. gitxi gora behera. Itsas Herrian sartu baino arinago, Ipazterreko ARROPAIN auzoan, Ibarra nasaitu egiten da barriz. Bertan, LUMENTXA meniskaren oinetan eta ontzigintzaren aurrez aurre, Zubieta Jauregia. Hementxe pinu eder bat

nabarmetzen da, etxekoren batek herbeste-tik ekarrinikoa eta Euskal Herriko pinuen amuma dala, esaten dana. Azken batez, zorionez edo zoritxarrez gure mendien itxurea (berezko edo jatorrizko zuhaitzak baztertuz) aldatzearen errua emoten jakona.

Lekeitio eta inguruak oso sosoan ikusteko LUMENTXAra (Kalbarria) igotea beharrezkoa da. Nekatu barik, 10 minututan goian izaten da. Eleiza eta gasolindegia tartean, Eusebio Erkiaga kalea, Kanposantua ezkerrean itziz, karrika hesitu artetik jarraituz eta Viakruziz hartunez, aitaren batean gailurrean. Tontor hau txapar artez josirik dago baina gainea ezin garbiago aurkesten da, Herria ederto baten aztartzeko. Beharbada tokirik bikainena LEKEITIO, arrano batek legeaz begiratu ahal izateko. Itsasorantz ezarritik eta eskumatik

ezkerrerantz jira osoa emonez, San Nikolas Ugarte (ura behean dagoenean hondartzatik bertara pasatu leike oztopo gabe baina itsasoari lotsa zaintzea komenigarritzkoa da), KARRASPIO Hondartza, KURLLUTXU Muinu (Ondarrura bidean) honen gainean TALAIZAHARRA Mendia (hemendik ere ikuspegi ona dago), atzeratxuago PAGOMENDI (Mendexan), Mendexako Dorrea (Lokiz), ZINOITZ (295 m.), ITUINOMENDI (405 m. Berriatu-Markina tartean), BEDARTZANDI (690 m. Aulestin gainean), AITXGANE (malda behera Ipazterreko Kurtziaga eta Artikaz auzoak, bertan URKIXA Dorre), OTOIO (394 m. eskumako azkeneko tontortxuen,

A. Narbaiza

SENDABEDARRAK

Gure artean beti izan dira sendabedarrak ezagutzen dituenak. Bagenkien Leandra Montezurikoak holakoetan aitzen ebana, eta hara berak esandakoak.

Estula: Perejila gorkinik jan estula kentzeko.


Kalentura: Berbenekin egindako infusioa hartu kalentura jaisteko.

Sinusitis: Arraultza zuringo bat "punto nieve"n ipini. Sartagin batetan oliba olioan ipini eta bertan berakatz bat frijitu, frijitu ondoren kendu berakatz eta berbenak eskukada bat bota (oso su bajaran frijitu) eta gero zuringoa bota eta tortilla egin. Tortilla hau zapi batetan batu eta bekokian ipini eta gau guztian eduki.

Eztarriko Pikorentzat: Llantenekin infusioa egin eta beronekin gargarak egin.

Bulto Txikientzat: Llantenen zumoa atera likuado pasatuz, eta ur hori guate batetan busti, eta ondoren, guate hori bultoan ipini gau osoan.

Ilea ez erortzeko: Asunak hartu eta ontzi batetan ipini saka sakan, gero honi 70º alkohola bota eta ontzi hori itxi. Ontzi honi egun birik bat edo buelta




Leandra Bengoetxea

eman, eta 18 egun pasatu ondoren prest dago, iraztontzi batekin pasatu eta ilearen sustraian eman astean behin edo.

Erreumarentzat untoa: Alkohola, erramua eta berakatz nahastuz dira. Hamabost egunean dena batera gelditu edukitzen da. Mina edukitzean unto hori eman.

Animalien Garatzak: Garatzaren inguruan bare batekin igurtzi, ondoren bare hori eta aste bete itxaron. Denbora hori pasatuta gero garatza desagertuko da. **M. Mallea**

MAHAI GANEKO DANTZARIA



Domingo Erkiaga mendexarra, baserritarra eta dantzaria

Izena eta abizena.

-Domingo Erkiaga.

Jaiotza eguna eta tokia.

-Likona erdikoa baserrian, Mendexan.

Eskondua?

-Bai, eta zaharra gainera.

Lanbidea.

-Baserritarra.

Noiztik dator zure dantzarako afizioa?

-Txikitatik. Hamar edo hamabi urte nituenetik.

Zure familian ba al zegoen zure aurretik dantzarako afiziorik zuenik?

-Ez.

Eta geroztik?

-Seme gaztea, orain dala hamar urtetik hona.

Zein dantza motagatik zara famatua?

-Mahai gaineko dantzagaitik.

Mahai gaineko dantzatik aparte, beste dantza motarik egiten dozu?

-Egin denak.

Zein duzu atseginago?

-Ondo egiten dudana. Gusto-koenatangoa. Soltea ere bai, agian gehiago.

Zenbat urtetan egin zenuen mahai gaineko dantza?

-35ean amaiu zen dantza hau, frankoren denboran. Orain berpizu eta apur bat berriro.

Aldatu al da dantza hau egiteko modua?

-Modu bakarra dago, ze neuk erakutsitakoa da.

Ikusten al duzu afiziorik jendearen artean?

-Oraintxe apur bat. Mendexan urte batzuetan egiten da eta beste batzuetan ez, segun alkatea nolakoa den e.a.

Etorkizunik ikusten al diozu dantza mota honi?

-Gaur egungo gazteekin asko ez, nahiago dute rocka.

Nondik dator?

-Ez dakit, ni baino zaharragoa da.

Herri guztietan dantzaten da era berdinean?

-Dantza hau bakarrik Mendexan egiten zen lehen. Orain Arretxinaga eta Galdakaon ere dantzaten da, baina ez ditut ikusi inoiz; badaukat gogoa Arretxinagakoa ikusteko.

Ze musika klase gustatzen zaizu gehiago?

-Niri musika bada dena gustatzen zait. Gustokoena trikitixa.

Ze eritzi daukazu dantza modernoari buruz?

-Eritzirik bapez. Gustatu danak.

Ardoa ala garagardoa?

-Nik ez dut asko edaten, baina mahi gainekoa dantzatzerakoan ardoa edatea da ohitura.

Ardoa botatik edatea gustatzen al zaizu?

-Ez.

Zein kirol gustatzen zaizu

gehien?

-Esku pelota.

Zure ustez zeinek du merito gehiago, Perurenak ala Manukortak?

-Perurenak, Mañukorta neu lakoxe asto bat da.

Jausi al zara inoiz mahai gainetik?

-Nik dakidala ez.

Inoiz sentitu al duzu lotsarik dantzatzeko orduan?

-Lotsa zer den ere ez dakit.

Kondizio txarretan (erresakae.a.) joan al zara inoiz dantzatzeko?

-Apur bat edanda inoiz bai.

Zein eritzi duzu politikoetaz?

-Nigatik "ni para arriba, ni para abajo". Ez dut ikusten demokraziarik.

Diktadoreak bai.

Mezatarra joaten al zara?

-Buuuuuf! Larregi.

Meza osteko txikiteroari buruzko eritzia:

-Lehen egiten nuen. (Andreari begiratu) Orain goardia zibila-ekin ezin da.

Ba al duzu orturik?

-Bai, soloak eta ganaduak ere bai.

Zure ustez gabonetako menurik onena?

-Txuleta ederra ere ez da txarra, baina ilusioa egoten da karakolak jateko.

Ados zaude jendeak gabonetan hinbeste diru gastatzearekin?

-Apur bat ondo dago, baina larre gastatzen da.

Jan al duzu angularik?

-Angularak baino nahiago dut bexigu eder bat.

Telebista asko gustatzen al zaizu?

-Bai, begiak kantsatu arte egoten

gara telebista ikusten. Askotan gaueko 12,30ak arte ez gara ohera joaten.

Zein da zure programarik gustokoena?

-Kirolak gustatzen zaizkit.

Famatua zara jende artean?

preparatzen al zinen?

-Niez nintzen preparatzen. Orain, semeak eta astean bi aldiz entsaiatzen dute hilabeteetan.

Eskatu al dizuten inoiz autograforik?

-Ez.



-Keba! Batzuentzat igual bai.

Gustatzen al zaizu zure ezagunak joatea zure dantzak iten, ala nahiago duzu ezezagunen artean dantzatu?

-Ez zait ardura. Zenbat eta jende gehiago hobeto.

Dantzatzeko erropa berezirik erabiltzen al da?

-Lehen ez zen erabiltzen. Orain bai, alkondara zuria eta txapela.

Zein da zure eritzia Lekeitioko udako turismoari buruz?

-Ganberro asko etortzen da. Automobilak aparkatu ezinik ibiltzen gara. Jende larregi.

Zein da zure horoskopoko signoa?

-Cancer.

Jokatzen al duzu loterian?

-Lehen bai, orain ez. Andrea da nahikoa loterian jokatzeke. Behin 5.000 pta. kobratu genituen.

Mahaia berezia al da?

-Bai, metro erdi zabala eta bost metrotako luzera du.

Dantzatu aurreko egunetan asko

Herri asko ezagutu al dituzu mahai gaineko dantzari esker?

-Bat ere ez. Dantza hau bakarrik Mendexan egiten nuen.

Jaietan edo egun bereziren batetan dantzatzeko al da dantza hau?

-San Pedro gauean dantzatzeko, erromeria amaitu eta gero.

Lekeitioko antzarretan ibili al zara inoiz sokatik tiratzen?

-Ez, bestelan egiten dut lan asko. Hara joaten direnak garagardoa-gaitik joaten dira.

Karraspio zenbaten salduko zenuke?

-(Barre eginez) Salduta balego be. Niretzako balitz dirua salduko nuke, bestela ez. Karraspio bertokoa, ez dago saltzeko.

J. Onaindia
A. Onaindia
A. Uriguen
T. Bengoetxea

Aulestiarrak Herri Kiroletan

"Aulestiko herria txikia baina herri-kiroletan haundia" entzun neutsan behin gizon bati. Nik neuk, egia esan, ez dot izan aukera ugari herri kiroleko ekintza askorik ikusteko Aulestin, baina ondo dakiti gizon hark (Etxebarrokoa bera) arrazoi euala.

Herri-kiroleko proba nagusiak Aulesti partean hauek izan dira beti: gizon-proba, harri-jasotzea, palanka jaurtiketa, pultsua eta txinga eroatea. Lehen, -minetan oraingo aurrerapen edo adelanturik ez zegoenean, -panlankari posturak be izanten ziren. Eta gogoan dabe askok Bilboko "Arenalean" soka-tiran nagusi izan zirela aulestiarrak 195...an. Ez dabe halako indarrak izan aizkorak, segak eta beste joko batzuek.

Gaurko honetan Aulestiko harri-jasotzaileak gogoratuko doguz. Ezin izango ditut esan danen izenak, jakina.

"Enciclopedia general ilustrada del Pais Vasco"-k badau herri kirolei buruzko liburu lodi bat. Liburu horrentan, 85. horrialdean, argazki historiko

bat dago. 1.947.garren urtean Amezketa ataratako argazkia da eta bertan hamabi harri-jasotzaile dagoz "Allizuri Aundi" izeneko harria jasotzera joanda. Hamabi horien artean hiru aulestiar dagoz: Justo Zuzaeta, Julian Goitiandia eta Koba. Inork ezin izan eban harria jaso baina ez indarrak ez ebelako, bazkari izugarria jan eta berehala ahalegindu zirelako baino. Bazkari hau jan eben: paella, bildotz errea, txuletak, arrautzak, tarta, ardoa eta koñaka. Mahaitik altza eta hiru ordu laurdenera egin eben saioa. Ezinezkoa zan egoera hartan harria jasotzea, orduan indarraren poderioz jasotzen eben harria eta preparazioak askotan ez ziren bapere egokiak. Baina hemen

esan gura nebana hau zen: Gipuzkoa eta Bizkaitik 12 gizon indartsu, orduko harri-jasotzaileak gogorrenak joan zirela Amezketa eta hiru aulestiarrak zirela.

Gure artean dogu Juan Koba, harri jasotzaile eta probalari haundia. Ameriketara pasa zituen arren bere urterik onenak ezaguna da eta haundizat hartua herri-kiroletan.

Eta hor ditugu "Sakoneta" eta "Mixel Unamuno", gizon gogor askoak, eta "Aulesti" eta "Txomin" eta "Kastillo" eta beste hainbat eta hainbat.

Aipatzekoa dogu Felipe Urkidi "Beñe".

1.972.ean, 35 urte ebazala "Endañeta" haundiarekin neurtu zituen bere indarrak. Endañetak orduan ez eban kontrariorik eta bentaja emon eutzan Malaxkoari. Beñek marka ona egin eban ekainaren 11 hartan Azpeitiko zezen plazan. 14ko zilindroa jaso behar izan eban (175 kilo) eta 29 jasoaldi emon eutsozan harriari eta postura irabazi. (Egia esan "Endañetak" 17koa jaso behar

zuen). Amezketa joan zirenak baino kontu haundiagoz ibiliko zen bai Beñe jator dutan.

Azkeneko urteotan bizimodua asko aldatu da eta kirol moduak be bai. Aulestin inor ez dabil orain harri jasotzen. Entzuna dot lborla bueltan orain dala berrogei urte gazte askok jasotzen euala 12koa (150 kilo). Domeka arratsaldetan batu eta lagun artean harri jasotzen ibiltzen ziren. Norgehiakokan beti, haserre be bai batzutan, baina lagun giroan gehienetan. Orain ez da horrelakorik.

Baina gogoan dogu Aulesti herri txikia izan arren kirol honetan be haundia izan dala.

E. Alkorta



Juan Uriarte, "Koba".

1.: Zer deritzozu Lea Ibarreko errebista bat sortzeari? 2.: Erabiliko zenuke zeozer esateko?

J.R. Azpiazu
"Etxeta". Tabernaria,
33 urte. Aulesti

1. Nahiko gogorra da hori erantzuti. Yo me paso de la revista.

2. Bai, porrejmplu goizeko lauretatik aurrera traguk doble kobrau bilitzakezala.

Ipini horratarako erabiliko neukela.



Leire, 17 urte; Ainhoa, 18 urte; eta Esti, 18 urte. Ikasleak. Aulesti.

1. Ondo, interesatea bertan gertatzen diren gauzakin enteratako.

2. Bai, zeozer balego bai, keجاتu behar bada zeozergaitik edo, Udaletxeak zeozer ondo egiten duenean eskertzeko, proposamenak emoteko, lagunak zoriontzeko, ...



Agurtzane Gojenola.
31 urte. Irakasle ohia.
Gizaburuaga.

1. Ondo, herrien arteko harremanak sendotzeko.

2. Bai. Salaketak egiteko; esate baterako Pediatrarik ez dogu; kontsulta bakoitzeko

4.000 pta ordaindu behar izatea.

Gure herri txikion bizimoduaren barri ondoko

Arantza Plaza Zamora. 33 urte. Irakaslea. Gizaburuaga.

1. Hasteko esan behar dut nire eguneroko gorabeherak beste inguru baten sortu arren, Lea Ibarrekoak ere oso hurbiletik sentitzen ditudala. Ondo deritzot eta honetako komunikazioa sortzeari eta zabaltzeari Lea Ibarrean.

Gure inguruan da biltzan beste zenbait komunikazio mota, hau da egunkariak, aldizkariak, etab. sarritan ez dituzte gure premiazko beharrianak kontutan hartzen, eta askoz gutxiago konpontzen. Plataforma zabal horiek esan daiteke herritik bizi direla, baina honelako aldizkari bat "herriaren bizia" izan daiteke: inguruko biztanleok eskuetan daukazue aukera zuzena eta bizia zeuen arakoak azaldu eta konpontzeko.

2. Ez da pentsatu behar gure inguruan sortzen diren arazoak norberarenak baino ez direnik. Danonak dira. Hein horretan neuretzat laguntza eskatzeko zein besteei neure ahalegina eskaintzeko erabiliko neuke.



J.M. Juaristi. 30 urte.
Harotza Mendexa

1. Ondo Preminazkoa.

2. Bai, duda barik erabiliko neuk, danontzat interesa daukan edozer esateko.



Maribi Ibaibarriaga. 25 urte. Lizenziatua. Munitibar.

1. Ondo. Hilabetero edo egiteko ondo, baina ez dakit ze erantzun eukiko leuken

jendearen aldetik, lana egiteko orduan.

2. Anonimo moduan bai, baina izenik ez neuke emongo, ohitura faltagaitik edo.

AULESTI

Hainbeste urte itxaroten egon ondoren eskolakeo azken urtea hasi eta geroxeago dirua batzen hasi ginen.

Domekero bakoitzak gauza bat ekartzen zuen. Elizpean egoten ginen meza irtetzeke zain, irtetzen zuenenan pintxoak izaten genituen, saltzeko, eta pastela errifatzeko.

Gabonetan, gabon-otzara zoragarri bat zosketatu genuen eta harekin diru asko atera genuen.

Urritik Martxora arte egon ginen Domekero gauza berdina egiten. Gabonetan, gabon-kantak kantatu genituen eta otsailean Santa Ageda.

Diru mordo bat batu, Ansa-ko autobusa hartu, eta bagoaz Madrilera!!!

Bost ordu luze igaro ondoren, Madril hiriburura heldu ginen. Maletak atera eta zuzenean albergera joan ginen. Albergean susto handia hartu genuen koltxoi marroi haiek ikustean.

Astean zehar, gauza asko ikusi genituen; Templo de Debod, Palacio de Cristal, Palacio Real, zoologikoa, museo pilo bat, eta batez ere Mallorkinara joan ginen pastel ederrak jatera. Goizero albergean gozaldtu ondoren, bost izarretako hotelera joaten ginen hamaiketakoa egitera. Eta merienda jatera Mac Donalds-era joaten ginen. Larunbatean, metroa hartu eta "Parque de Atracciones"-era joan ginen.

Bertan Montaña Rusa ikaragarriak egozan, Casa del Terror, Barco Pirata, uretako Montaña Rusa, noria,



TEXTU: U. Egurrola, E. Azpiazu, A. Solozabal, I. Ibarra, L. Zarragoikoetxea.

ispiluen laberintoa eta beste hainbat gauza. 8:00ak heltzerakoan han zeuden gure aitatzko eta amatxo guztiak.

MUNITIBAR



TEXTU: Joseba Uberuaga

Leagi

Behin Mendexako Leagi kanpinera joatea erabaki genuen. hara heldu kanpina piskatxo bat ezagutu eta hondartzara!! Oso ondo ibili ginen.

Leketioko Kalbariora ere joan ginen eta argazki pilo bat atera genituen. Bista ederra zegoen! Ondarruko portutik ere bueltatxo bat eman genuen baita Leketiokotik ere.

Egun batetan euria egin zuenez aspertu egin ginen baina hurrengoan eguzki ederra zegoenez Ondarruko pisinetara joan ginen. Bokadiloak Gerrik (Leagi kanpineko jefek) ekarri zizkigun. Azken egunean jai bat egin eta hirurak arte geratu ginen, hurrengo goizean maletak prestatu eta etxera!!

GIZABURUKO LEZAK



Badira Gizaburun hainbat leza baina guk bateri buruz hitzengingo dugu. Hau, Goikoetxe eta Landeta baserrien artean kokatzen da, pinadi batean.

Lezak aho txikia du baina barrurantz pixka bat zabaltzen da eta harri urtenak ditu barruan.

Orain 70 urte, Eguen Goikoa deritzon baserrikoak, basoa garbitzeke sua egin zuten, baina haizea zegoen eta sua zabaldu egin zen. Hori zela eta, Okamika auzotik, jendea joan zen sua amatatzen laguntzera. Gaua zen eta Simon Goikoetxea, Goikoetxe baserrikoa, leza horretara erori zen. Berak bazuen lezaren berri eta non zegoen ere bazekien baina gauaren iluntasunaz desbideratu ziren bera eta beste bat.

Ezbeharrez leza horretara erori zen Simon, 25 metrotara eta zorionez harri urten baten geratu. Bera makalik egon arren, hezurak apurtuta eta golpe mordoak zuen, baina harri txikiak botatzen zituen beharuntz eta esaten zuenez hurrunera entzuten zen haien zarata.

Berarekin zihoan gizonak gertakizunaren berri eman zuen beste etxe batzuentan eta denak joan ziren soka batzuk harturik, ea ateratzen zuten. Bota zizkioten sokak eta sokaren puntan farola, lezaren barruan ilun bait zegoen.

Bera bakarrik lotu zen eta atera zuten denen artean. Hainbat hezur apurtuta zituen eta Elgoibarko eritetxera eraman zuten. Bertan hainbat eta hainbat hilabete igaro zituen hezur guztiak osatu arte.

Elgoibarreraino oinez joan behar zen, eta bere koinetu batek bakarrik bisitatzen zuen, Gizaburutik oinez joanda.

Beste hainbat leza ere badira Gizaburun, beste bat bada Okamika mendian aipatzekoa. Honek aho zabala du. Gure aitonak eta amonak esaten zutenenez, behin batean Mugire deritxon baserriko behi bat erori zen bertara eta handik denboraldi batera bere adarrak agertu zirela zioten, "Iturri zaharra" deritxon haitzuloan.

Isuka

Baserritarren arazoetariko batzuk

P.Nicholson

"Landa Eremua eta Baserria" ponentziatik hartuta.

Aulestin, 1.991ko Maiatzaren 8an.

Laburpena: M.Unamuno.

Aulestiko Udal Aretoan, 1.991ko Martiaren 16an, Lea-Artibaiko egoera sozio-ekonomikoari buruzko ihardunalia ospatu zan. Egun horretan eskualdebiotan lan egiten daben hainbat lagunek emon euskuen heuren ereitzia.

Honeen artean bat aukeratzen dogu oraingoan, ihardunaldi haretara joateko astirik edo modurik izan ez ebenentzat.

Inoren berbak erabiliko ditugu bada, hain zuzen be, Euskal Herriko Nekazarien Elkarteko (EHNE) Paul Nicholson jaunarenak. Berak aurkestutako ponentzia Landa Eremua eta Baserria izenekoa izan zan.

Azken urteotako Nekazal politikak, bai Euskal Herrian eta bai European, baserrien produkzio modua

aldatu egin dau, produktore gitxik produkzio handiak sortu beharko leukeez. Hemen daukagun sistemaren guztiz kontrakoa, bertokoa produktore asko eta bakoitzak produkzio txikia dogu.

Baserrian janaria sortzen da, ingurugiroa zaintzen dau eta landa eremua mantentzen dau; hiru funtzinoiok garrantzizkoak dira gizarte osoarentzat, beraz, guztion interesagaitik baserriei eutsi egin behar jake. Heurori eusteko, hiru puntu jo zituen Nicholson jaunak, hobetu beharrezkotzat:

1. Biztanleria finkatzea, dagoen azpiegitura maila eta baldintzak hobetzea. Garraio publikoa, eskolak, sanitate laguntzak, eta abar.

2. Baserrigintzarako lurra eskuratzeko erraztasunak.

3. Bertoko produktuen balio erantsia desarroilatzea eta heuron salerosketarako bideak potentziatzea.

Hemengo produkzioa txikia delako, eta banaketarako aukera handirik ez dagoelako, gatx egiten jaku hemengo produktoak komertzializatzea.

Gauza honik be badago eta esan behar dogu:

1. Hemen sortzen diren janariak osasuntsuak eta naturalak direla.

2. Kontserbante eta antzekorik gabeko produktu freskoak direla.

3. Ingurugiroa hondatu ez duen eskualdean gabizela.

4. Bertoko kontsumitzaileak baserriko produktua estimetan dabela. Baserritarra eta kontsumitzailearen arteko erlazioa benetan badala oraindino hemen, Europako beste leku batzutan zehatz galduta dagoena.

Alde onok galduz doaz baina ahalegina egin ezkeru eusteko moduan izango garela pentsetan da, horretarako baserri bakoitzak zer produziduten daben zehatz jakin beharko litzake; ondorengo pausua erostzailearen preminak zeintzuk diren jakitea izango litzake, eta azkenez produziduten dana eta preminen arteko orekara jo beharko litzateke, funtzionamendu egokia lortu ahal izateko.



Geu Geutara


Datuok huts-hutsik ikusita be nahikoa adierazgarri izan daitezke. Bost herko joera bardin antzerakoa da, hau da, jaiotzatan lako bi dago heriotzatan. Honen esanahia be argia da; edade handiko biztanlegoa dugu gure Ibar honetan.

Ez gara, oraingoz behinpehin, biztanlego zaharra izatearen arazoak aztertzen ibiliko; datu hutsa emonda itxiko dogu. Halan da be, eta datua hotsa izan ez daiten izen eta afelidoz agurtuko ditugu joan jakuzanak eta modu bardinean eskribiduko ditugu gure BIZILAGUN BARRIAK, zorionsu izan zaitzezela gure artean! **M.Unamuno**

AMOROTO	JAIOTZAK	HERIOTZAK
1.991	3	6
1.992*	1	1
JAIOTZAK		
Xabier Itxaz Gabiola		91.07.27
Lexuri Zubizarreta Gezuraga		91.12.11
Asier Madarieta Iturraran		91.03.16
Julen Zelata Markuertaga		92.05.08
HERIOTZAK		
Domingo Gojenola Etxabe		91.03.25
Victoria Urrutia Argenta		91.06.20
Maria Onandia Bastetxea		91.02.12
Catalina Santamaria Gabiola		91.12.17
Martina Plaza Maguregi		91.04.25
Jose Martin Odiaga Urizar		91.01.17
Maria Leniz Urkiaga		92.03.14
AULESTI		
1.991	3	7
1.992*	1	5
JAIOTZAK		
Sonia Lekuona Itxasua		91.05.27
Mauder Ondarza Urkidi		91.04.30
Ander Jalo Gardoki		91.10.16
Jona Ansoategi Ikazurtaga		92.05.04
HERIOTZAK		
Torbis Karcaga Gontandia		91.04.20
Domingo Espillandia Espillandia		91.05.16
Maria Merdiola Zuzaita		91.06.22
Jose Zaldenbide Mallabia		91.07.04
Julian Urarte Onandia		91.11.08
Antonio Aboitz Malaxetxebarria		91.11.26
Isidoro Etxebarria Atxama		91.12.09
Ramon Etxabe Azpitazu		92.01.21
Virginia Urizar Karcaga		92.01.26
Benito Arrate Karcaga		92.04.03
Petra Alza Urarte		92.05.22
Jose M. Gandiaga Mayorra		92.06.16
GIZABURUAGA		
1.991	1	3
1.992*	--	2
JAIOTZAK		
Paula Leniz Gojenola		91.11.15
HERIOTZAK		
Pedro Maguregi Urkiola		91.03.09
Jose Etxabe Gabiola		91.08.05
Rufino Urrutibaskoa Lauzurika		91.10.04
Pedro Goikoezxea Omar		92.03.03
Bitoriano Goikoezxea Iturraran		92.05.18

MENDEXA	JAIOTZAK	HERIOTZAK
1.991	2	2
1.992*	--	3
JAIOTZAK		
Xabier Iturraspe Gandiaga		91.02.21
Ahane Gerrickabeta Espilla		91.09.11
HERIOTZAK		
Joseta Ignazia Aranbarri Urkiaga		91.02.08
Alejandro Arrillaga Goikoezxea		91.12.10
Fusebio Txakartegi Zendoia		92.01.07
Maria Aguirre Uskola		92.02.04
Justa Erkiaga Zillomiz-Odiaga		92.02.29
MUNTIBAR		
1.991	4	8
1.992*	2	3
JAIOTZAK		
Jose Barriagarementeria Gandiaga		91.01.23
Peru Mintegia Mendieta		91.08.29
Alex Urcuaga Acinaga		91.04.09
Ander Malaxetxebarria Ibaibarriaga		91.12.23
Aitor Irusta Olano		92.05.08
Irene Andikoezxea Onandia		92.05.12
HERIOTZAK		
Tomás Armaolea Zuzaita		91.01.04
Irene Urresti Urresti		91.03.13
J Manuel Zurigoikoezxea Larruskain		91.04.04
Juan Irazabal Urarte		91.04.19
Gabrie Lapasa Bilbao		91.08.02
Andres Barriagarementeria Eguiguren		91.09.14
Franziska Atxerandio Gonzalez		91.10.16
Kontzesion Gerrickabeta Martitegi		91.10.26
Felix Arrate Armaolea		91.12.25
Dorothea Manuri Izaguirre		92.01.28
Lorenzo Zaramona Ereño		92.04.26
Cristobal Larrinaga Ezzaguirre		92.05.12

*1.992ko datuak ekainera artekoak dira.



BERTOKO ARITZA

ESPEZIEA: Quercus robur L. Haritz arrunta.

BEREZKO EREMUA: Europa osoan barrena ageri da. Atlantikotik Uraletaraino eta Iberiar penintsulatik Suediaraino.

IZAERA: Ez du argitasun handirik behar. Oso sendoa.

SUSTRAIEN EGITURA: Ardatz eiteko sustrai nagusi sendo, sakon eta hondarreraino doana dauka eta, albo-sustraiak ere, ondo zabalduta eta indartsuak irietzen zaizkio.

ALTUERA: Tantal handia hazten da, 40 metro bainokoa eta itxura lerdenekoa.

KLIMA: Ondo hartzen du hotza, 22° C-etik 44° C-ere arteko tenperaturak jasan ditzake. Urteko, 600 mm-tik gorako prezipitazioak, aireko hezetasuna eta, batez ere, lurteko hezetasuna behar ditu.

LURRA: Lur sakona. Bai lur buztintsuetan

zein hareatsu istiltsuetan hazi daiteke eta lurra egurastu gabe egon arren ez dio ardura, ezta kareak ere, lurrazalekoa ez bada behintzat. Ez ditu batera maite lur azidoak.

BIZIRAUPENA: Erraz hartzen ditu 600 urte nahiz eta hazkundera 200 inguru dituela eten egiten den. Gernikako Arbola XIX. mendean hil zen, 1.000 urtetik gora zituela.

HAZKUNDEA: Motel-motela, urteko eta hektareako 0,5-1,5 m. inguru.

BASOGINTZA: Hobe da udazkenean landatzea, 1.500-2.000 landare hektareako. Lau urtean garbitu egingo da basoa. Inausketak egingo dira eta lehen mehaketa 30-40 urtera egingo da. Ebaketa aldiraino behar adina mehaketa egingo dira. Ebaketa 200 urte inguru dituela egiten da eta, artean, basoan mehaketa etengabe eta uniformeak egin behar da.